

## *Dokumentazio teknikoa Euskal Herrian*

*Egunon guztioi, ongi etorriak izan zaitezten gaurko ospakizun honetara.*

### **Hitzaurrea**

Nire izena Thomas Diedrich da. Bilbotik gertu dagoen Zamudioko Parke Teknologikoan kokaturik dagoen Itzulpengintza eta Dokumentazio Teknikoa zerbitzutat dituen enpresa ertain baten zuzendaria naiz. Gaur, zuekin eta zuen aurrean nago Deustuko Unibertsitatean ere irakasle gisa lan egiten dudalako; unibertsitate hori Tec-Doc-Net proiektuko kidea da, eta horixe da, bederen, gaurko bileraren arrazoia.

Lehenengo eta behin Tec-Doc-Net-eko proiektu-kudeatzailea den Ursula Fritz-i eta Tekom Alemaniako zuzendaria den Michael Fritz-i eskerrak ematea gustatuko litzaidake, haiek eman baitidate aukera Euskal Herrian dokumentazio teknikoak duen egoerari buruzko hitz batzuk zuei guztioi eskaintzeko.

### **(1) Egoera sozial eta geografikoa.**

Euskal Herria Espainiako iparraldean dago kokaturik. Horren hedapena, gutxi gora behera, 100 x 100 kilometrotakoa da eta hiru hiriburuak Bilbo, Donostia eta Gasteiz dira. Dituen ezaugarri berezien artean bere politika, kultura eta hizkuntza ezberdinak aurkitzen dira, Espainiako beste probintziekin alderatuz. Jakingo duzuen moduan, Euskal Herriak beste hizkuntzekin zerikusirik ez duen hizkuntza propioa du: euskara.

### **(2) Ekonomia Euskal Herrian.**

Euskal Herriko industria tradizionala duela mende anitz jaio zen. Eremu honek beti izan du ezaugarritzat industria aktibitate handia, gehienbat, metala eta makinaria sektoreei dagokienez. Makina erreminten fabrikazioa, gakoa den sektorea, XIX. mende bukaeran hasten da eta Euskal Herriak haren "jaioterria" izaten jarraitzen du.

### **(3) Industria bilbadura eta sektoreak.**

Euskal Herriko industriaren ezaugarri garrantzitsuetariko bat ondorengoa da: Bertan dauden enpresa gehienak txikiak edo ertainak dira, gehienetan familia-enpresak izaten dira eta haietan ez dira egoten 50 pertsona baino gehiago lanean. Badaude zenbait multinazional, batez ere automobil sektorean eta horren ondorioz sortutako beste industria batzuk (DaimlerChrysler, Gasteizen eta Volkswagen, Iruñean).

Ugariak diren sektoreen artean aipatutako makina erremintarena dago. Hauxe esportazio portzentaia altua duen sektorea da. Horretaz gain, automobil sektorearen ondorioz sortutako industria ere ugaria da. Hirugarren sektore bat, osagaien eraikuntzak, autobusek, ontzitegiek eta zerbitzuek osatzen dute. Behar bada, ahulagoa dena Euskal Herrian, software garapenarena da eta hori ere abangoardiako edozein industriatan gakoa izan behar duen sektorea da.

### **(4) Dokumentazio teknikoaren egungo egoera.**

Plantillan pertsona gutxi dituzten enpresen estrukturaren ondorioz eta horien hezkuntza maila erdia dela eta (industriarekin zerikusia duen lanbide heziketa), dokumentazio teknikoak gaur egun duen egoera ez da beharko litzatekena: Aipatutako enpresa askotan ez dago erantzukizun tinkorik dokumentazioarekin eta itzulpenarekin zerikusia duten zereginei dagokionez. Ondorioz, eremu oso hau beti gai gogaikarritzat jo da. Horregatik guztiagatik, askotan, joera, lanaren parte hori produktua bukatu arte "geroratzea" izan da. "Deserosotasun" horri prestakuntza profesionalaren falta ere

gehitu behar zaio, dokumentazioa burutu behar duten arduradunen partetik, hau da, enpresa batzutan egon badaude zeregin horien arduradunak diren pertsonak, baina, ez daude horiek arrakasta pittin batekin ere aurrera eramateko prestatuak. Aurreko egun batean, enpresa batetan egon nintzen eta bertan Volkswagenera bidaliko zuten makina baten erabilera-eskulibururik zuten galdetu nien. Eskuliburuak eskuz idatzitako piezen erreferentziak biltzen zituen piezkatze teknikoak zuen. Eta nik zera galdetu nuen: Nola egiten dituzue instalaziorako planoak? AUTOCAD erako programak erabiltzen al dituzue? Teknikoak neure eskua hartu eta marrazketa arbel batera gerturatu ninduen eta bertan zera esan zidan: Hemen gauzak eskuz egiten ditugu oraindik.

Beste hainbat enpresetan ere zera esan didate, nahiz eta ezagutu ezagutzen duten dokumentazio teknikoak duen garrantzia, kalitatezko eskuliburu batek dakarren "kostu izugarria"-k nahikoa konpetitibotasuna kenduko ziokeela produktuari. Enpresa ertain batek gutxienez idazlari tekniko bi izan behar lituzkeela kontutan izanda eta euskal enpresen batezbesteko tamaina hausnartzuz, enpresa askorentzat "inbertsio" horrek gainkostu garrantzitsua suposatuko luke, gehien bat egungo egoera kontutan izanda.

#### **(5) Hezkuntza posibilitateak.**

Lan harremanak ditugun enpresetan ikusi ahal izan dugunez, dokumentazio teknikoari dagokionez, hezkuntzan dauden hutsuneak kontutan izanda hurrengo posibilitateei buruz erreflexionatu behar dugu, idazlari teknikoaren profil profesionala gutxika-gutxika garatzen joateko eta, era berean, enpresei ondorengoa sartu behar diegu buruan: dokumentazio teknikoak duen garrantzia, produktuaren beraren parte gisa.

Aurre pausu gisa, joan den urtean tecom Espainia sortu zen , lehen plataforma herabera hain garrantzitsua eta egungoa den gai horri buruzko informazioa trukatzeko

Orain arte, hiru ospakizun prestatu ditugu. Lehena, itzulpenen kalitateari buruzkoa, Deustuko Unibertsitatean, bigarrena dokumentazio teknikoaren ulergarritasunari buruzkoa, Arabako Parke Teknologikoan (Gasteiz) ospatua eta hirugarrena, dokumentazio kudeaketa sistemei buruzkoa, Zamudioko Parke Teknologikoan. Pasadan urte bukaeratik aurrera tekem-en Newslettera gazteleraz argitaratzen ari gara eta egun bi hilero bidaltzen da interesatu potentzialak diren 1.000 pertsoneri. Dena den, egi osoa esan behar dugunez, orain arte izan ditugun erantzunak moderatuak izan direla aipatu behar dugu nolabait. Aurreko astean tekem Españako zuzendaritza bildu egin zen eta laugarren Newsletterean inkesta bat bidaltzea erabaki zen. Berehala argitaratuko da hori eta bere helburua interesatuen erantzukizun eta inplikazio handiagoa lortzea da.

Hezkuntza alorrari dagokionez, prestakuntza ikuspuntu ezberdinak beha daitezke. Deustuko Unibertsitatean graduatu-ondoko kurtsoa jartzen saiatzen ari gara eta Unibertsitate horren izenean parte hartzen ari naiz ni proiektu honetan. Bestalde, enpresa bakoitzarentzat egokiak diren hezkuntza moduluetan ere pentsa genezake. Dena den, aurrerago garatu beharreko gaiak dira horiek.

#### **(6) Idazlari teknikoaren beharra enpresetan.**

Lehenengo aipatu dudana kontutan izanik, hau da, enpresa txiki edo ertain batek gutxienez idazlari tekniko bi behar dituela, Euskal Herrian dauden mila enpresa baino gehiagotan gutxienez 2.000 pertsona egon beharko lirake fabrikatzen diren produktuen dokumentazioa garatzeko. Datu kontserbadore horri detektatutako

hezkuntza hutsunea gehitzen badiogu, neurri handiago edo txikiagoan, hezkuntza premia dagoela esan genezake.

**(7) Beste aspektu batzuk.**

Neure berbaldia bukatzeko etorkizuneko egoerari buruz baikorra den ikuspegia ematea gustatuko litzaidake. tecom Espainiatik eta kide diren enpresetatik behar horri aurre egin behar diogu ez soilik detektatutako hezkuntza hutsuneak betetzeko, baizik eta hain berezia den sektore horrek dituen behar ezberdin orori erantzun bat emateko. Dokumentazio teknikoak egun duen imajina kaskarra aldatu behar dugu eta horixe alderantziz jarri hurrengo helburuarekin: enpresek ulertu egin behar dute produktuek duten kalitate bera izan behar duela dokumentazio teknikoak, epe ertain eta luzean enpresaren biziraupena ziurtatzeko. Behar bada momentuan ditugun ideia batzuk ametsak soilik dira, baina irrika handiarekin espero dugu egunen batean errealitate izango direla. Denbora izango da horren testigu.

*Mila esker zuen arretagatik.*